

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan saltzen diren elikagaietan genetikoki aldaturiko organismoen presentziari eta kuantifikazioari buruzko azterketa baten emaitzak

1. Sarrera

Genetikoki aldaturiko elikagaiak beren aldeko eta aurkarien arteko eztabaida gogorren gai izaten ari dira azken urte hauetan. Elikagaiei dagokienez, araudiak onartzen du genetikoki aldaturiko organismo (GAO) baimenduak edukitzea, baldin beren etiketatuak hala adierazten badute, edo %0,9raino, adierazten ez badute, maila horretaraino istripuzko kutsadurari zor izan dakiokeela ulertzen baita, hau da, elikagaiekin diharduten arduradunen borondate edo kontrolarekin zerikusirik ez daukala. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saitetik kontrol plan bat gauzatu da kontsumitzailearen eskura dauden elikagaietako GAOen presentziari eta kantitateri buruzko Europako Elkarteko araudiaren betetzea bermatzeko.

Ahalik eta ongien gidaturiko plangintza bat egiteko, kontuan eduki dira aurreko laginketako datuak eta emaitzak bai eta Estatu mailako erakundeek emaniko orientabideak ere. Aurretiazko informazio horrekin, laginak hartzeko produktuen plangintza zehatz bat egin zen honako helburu eta laginketa irizpide hauek kontuan hartuta:

- GAOen kontsumoaren egoera benetako eta eguneratua eza-gutzea EAEko elikagaien bitartez.
- Estatuko eta Europako Araudietatik eratorritako GAOen kontrol obligazioak betetzea (Elikadura Produktuen Kontrol Ofiziala, GAOen Etiketatua eta Trazagarritasuna, GA Pentsuak eta Elikagaiak...).
- *ENSEA* -eko GAOen Laginketa Programa Koordinatuan parte hartzea.
- Merkatu egoera aztertzea elikapean alerten gai diren produktuei dagokienez (LLRICE601 arroza, Bt10 artoa) edo EEan baimenduak ez direnei dagokienez (GA21 artoak, 809x810Starlink edo MON)
- Legearen arabera jokatzeko araudia betetzen ez deneko kasuak detektatzen direnean.

2. Materiala eta metodoak

Guztira 92 elikagairen laginak jaso ziren azken kontsumitzaileei saltzeko establezimenduetan, Araban, 2006ko azaroan.

Lagintzeko produktuak 9 elikagai taldetan banatu ziren: 1) Hara-giak, 2) Jaki prestatuak, 3) haurrentzako esneak, 4) Haurrentzako ahiak, 5) Arto fekula eta irina, 6) Soja, 7) Soja edo artozko dietetikoak, 8) Gailetak eta opilak, eta 9) Arroza.

Laginak ofizialki eta bakoitzetik hiru ale jaso zituen Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordetzako pertsonalak elikagaien salmenta txikizkarizko establezimenduetan. Identifikatu, prezintatu

eta egokitu egin ziren aipatu Zuzendariordetzara eramateko eta handik Laborategira bidali ziren analisiak egiteko.

Analisiak gauzatu ziren Laborategiak *KEN*-en kreditazioa dauka ISO 17025 Arauari jarraiki, eta kreditazio horren arabera gaitua dago GAOen detekzioa eta kuantifikazioa egiteko.

Honako GAO hauen presentzia ikertu zen (eta kuantifikatu zen zegoen kasuan):

- Artoa: Bt176, Bt11, Bt10, T25, MON810, MON863, MON809x810, GA21, NK603, Starlink, 1507 (Herculex).
- Soja: RR (Roundup Ready).
- Arroza: LLRICE601.

3. Emaitzak

5 laginetan detektatu zen GAOen presentzia (guztizkoaren %5,4):

- Produktuetako 3 haragien laginketa taldeari zegozkion. 3 kasuetan RR soja detektatu zen (horietako bitan %0,9 baino gutxiago eta hirugarrenean maila horren gainetik).
- Beste 2 produktuak arto fekula eta irinaren laginketa taldeari zegozkion eta, hurrenez hurren, RR soja eta MON810 artoa detektatu ziren, bi kasuetan legalki ezarritako mailak gaindituz.
- Ez zen detektatu ezin GAOren presentziarik, ezin mailatan, jaki prestatu, haurrentzako esne, haurrentzako ahi, soja, soja zein artozko dietetiko, gailetak eta opil eta arroz laginketa taldeetako ezin produktutan.
- Produktu bakar batek ere ez zeukan Europako Elkartean baimendua ez dagoen GAOrik.

4. Konklusioak

1. Esan daiteke salmenta puntuan elikagaiei buruz egin den laginketa GAOak edukitzeko probabilitate handiena daukaten elikagai mota guztiak barne hartzeko behar bezain zabala eta adierazgarria izan dela.
2. Laginen %5,4an detektatu zen GAOen presentzia.
3. Laginen %3,2ak urratzen zuen GAOen etiketatu eta trazagarritasunaren araudia, %0,9 baino gehiago edukirik, bere etiketan adierazten ez zuelako.
4. Ezin produktuk ez zeukan Europako Elkartean baimendua ez dagoen GAOrik.

Santiago Valcárcel

Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetza